

## **AURREKARIAK**

Euskal Herriko Unibertsitatearen Udako Ikastaroen esparruan 2021ean egindako Diplomazia Publikoari/Kultur Diplomaziari buruzko Nazioarteko Ikastaroaren amaieran, borondatea adierazi zen bi urtean behin Nazioarteko Kongresu bat antolatzeko, kongresu hartan ezarritako helburuekin bat etorriko zena, hain zuzen. Proposamen hau borondate horri erantzutera dator.

Lehen ekitaldi horri jarraipena emanez, bi *Webinar* antolatu ziren geroago, 2021eko abenduan eta 2022ko apirilean. Diplomazia publikoaren arloan diren bi esparru berezi aztertu ziren webinar haietan: gastrodiploiazia eta kirol-diploiazia. Bigarrenak arrakasta berezia izan zuen. Sei orduko saio bat izan zen, eta alor horretan lehen-lehen mailakoa hainbat adituk hartu zuten parte. Berrogei herrialde baino gehiagoko 200 lagunetik gora bildu izanak islatzen du ekitaldiak hartu zuen neurria.

2021ean hasitako prozesuari esker, gainera, eztabaidatzeko, hausnartzeko eta esperientziak eta ezagutza trukatzeko komunitate bat (Donostia Community of Public Diplomacy) egituratu ahal izan da. Unibertsitateak, erakunde publikoak, erakunde pribatuak, enpresak eta gizabanakoak ordezkatzuz seihun pertsona baino gehiagok osatzen dute espazio dinamiko hori, bost kontinenteetako errealitateak irudikatzeko aukera emanez. Horri guztiari esker, Donostia nazioarteko erreferentzia esanguratsu bihurtzen ari da diplomazia publikoaren esparruan. Hauxe da diplomazia klasikoaren aurpegi berria, hura ordeztu gabe, haren osagarri bihurtzen ari baita.

## **PROGRAMAREN GAKO BATZUK**

### **3.1. Erreferentziazko ereduak**

Kongresuak eredu kontrastatuak azaltzeko balioko du, bai estatuak bai estatuak baino esparru txikiagoek gidatutako ereduak, hain zuzen, baina ahaztu gabe kirol-diploiazian jarduten duten erakunde, instituzio eta norbanakoen ekarpena. Kongresu honen ekimena Euskaditik abiatzen da, eta, horregatik, esperientziak eta ezagutzak antzeko errealitateekin trukatzeko eta azaleratzeko da helburu nagusietako bat.

Horrekin batera, mendebalde mundura mugatzen ez den begirada globala bermatuko du kongresuak.

### **3.2. Espazio publikoa/pribatua: mundu akademikoaren eta politikak praktikan jartzen dituen munduaren arteko topagunea**

Hastapenetan den esparru hau artikulatzen eta sendotzen ari da azken urteotan, era askotako eragileen bultzadari esker. Baina eragile horiek, eskuarki, kirol-diplomaziaren arloko praktikak beren kasa eta elkarren arteko loturarik gabe ari dira gauzatzen. Kongresuak gune bat sortu nahi du eragile horiek uztartuago jokatu ahal izan dezaten. Era berean, kongresuak ahalbidetuko du mundu akademikoa eta kirol-diplomazia praktikara eramaten duen munduaren arteko loturak eratzea.

### **3.3. Ikuspegi integrala**

Eremu honetan badira elementu desberdinak, kontrakoak eta, aldi berean, osagarriak direnak, eta osotasunean hartuta aztertu behar dira. Arloz arloko edo zatikako azterketa ez dira nahikoak fenomenoaren konplexutasuna ulertzeko. Elementu anitz horien artean harreman zabala dago, zalantzarik gabe, eta horietako bakoitza sakon aztertu beharko litzateke. Horregatik, ikuspegi ekonomikoa, soziala, identitarioa, kulturala, politikoa eta abar erlazionatuz, horiek guztiek kirol-diplomaziaren eremua nola artikulatzen duten frogatu nahi dugu.